# BISITA GIDATUAK - VISITAS GUIADAS



## Deba-Mutriku-Zumaia

## Flysch & Karst

2017

www.geoparkea.com

Geoparkea
Euskal Kostaldea - Costa Vasca

**Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkea** liburu moduko bat da, gure planetaren eta gizakiaren historiako hainbat kapitulu gordeak dituen lurralde bat, eta bidaia zoragarri baterako hamaika ate eskaintzen digu: denbora geologikoan zehar eta milaka urteko gure herri honen kulturan eta tradizioan barrena aurkikuntzazko bidaia bat egiteko aukera, hain zuzen.

Euskal Kostaldeko Geoparkea Mutriku, Deba eta Zumaiako udalerriek osatzen dute. 2010az geroztik, Europako eta Munduko Geoparkeen Sareko kide da.

El **Geoparque Mundial de la UNESCO de la Costa Vasca**, un territorio que atesora distintos capítulos de la historia del planeta y el ser humano, nos brinda un auténtico viaje para descubrir el tiempo geológico y la cultura y tradición de un pueblo milenario.

El Geoparque de la Costa Vasca está conformado por los municipios de Mutriku, Deba y Zumaia. Desde 2010 es miembro de la Red Europea y Global de Geoparques.





# Bisiten egutegia
# Calendario de visitas 2017

- Flyscharen ibilbidea / La ruta del Flysch Zumaia-Deba-Mutriku
- Flyscha, begirada batean / Flysch esencial
- Zumaiatik Debara / Debatik Zumaiara itsasontziz-en barco
- Nautilus, flysch-eko fosilak / Nautilus, los fósiles del flysch Mutriku
- Irteera geologikoa / Salida geológica Zumaia
- Flysch beltza / El flysch negro Deba
- Marearteko zabalgunea / La rasa mareal Deba-Mutriku-Zumaia
- Karsteko zaporeak / Los sabores del Karst Mutriku
- Lastur familian / Lastur en familia Deba
- Flyscheko olagarroa / El pulpo del flysch Zumaia
- Gotikoaren altxorra Deban / Joya del gótico en Deba
- Mutriku marinela / Mutriku marinera

**Kodeak/Códigos:** □ ○ Euskarazko aukera dago, ikusi ordutegia/Visitas en euskera, consultar horario.

**Irteera puntuak**
**Puntos de salida:** **M** Mutriku (Turismo bulegoa-Ofic. turismo) **S** Sakoneta **Z** Zumaia (Turismo bulegoa-Ofic. turismo)

## BALDINTZA OROKORRAK OHAR GARRANTZITSUAK:

• Bisita gidatuen informazio eguneratu eta osatuena **www.geoparkea.com** webgunean edota turismo bulegoetan ematen dena da. Hiru turismo bulegoetan nahiz webgunean eros daitezke txartelak.

• Bisiten iraupena batez bestekoa da; taldearen eta eguraldiaren arabera aldaketaren bat egon daiteke.

• Bisitek aldaketak jasan ditzakete edo bertan behera gera daitezke, eguraldiaren edota beste arrazoi batzuen eraginez. Hau dela eta, beharrezkoa da harremanetarako telefono bat ematea eta hura aktibo izatea. Bisita bertan behera geratzen bada, dei baten bidez edo SMS bidez jakinaraziko da eta bi aukera eskainiko dira; plazak libre dituen beste bisita batera aldatzea (diferentzia ordainduz edo itzuliz) edo ordaindutako diruaren %100 itzultzea. Itzulketa, ordainketa egina izan den bezala egingo da.

• Bisitari kopurua mugatua denez, ezinbestekoa da erreserba egitea tokia ziurtatu nahi bada.

• Kontuz: bisita batzuetan irteera puntua aldatzen da, egun edota orduaren arabera. Bisitaren irteera puntua adierazita egongo da erreserban baina erabiltzailearen ardura izango da hura non dagoen argitzea eta bisita hasi baino 10 minutu lehenago bertan egotea. Garaiz iristen ez bada, bisita egiteko eskubidea galduko du.

• Erreserba bat aldatu edo baliogabetu nahi izanez gero, 48 orduko aurrerapenarekin egin beharko da.

• Prezioetan BEZ barne hartuta dago.

## CONDICIONES GENERALES OBSERVACIONES IMPORTANTES:

• La información más actualizada y completa sobre las visitas guiadas es la que se ofrece en la web **www.geoparkea.com** o en las oficinas de turismo. Es posible adquirir tickets en cualquiera de las tres oficinas de turismo o en la web.

• La duración de las visitas es aproximada ya que depende de las características del grupo y de la climatología.

• Las visitas pueden ser modificadas o suspendidas por la organización a causa del estado de la mar, de la climatología u otros motivos, y se notificará mediante llamada telefónica o SMS. Por ello es obligatorio facilitar un teléfono al hacer la reserva y mantenerlo encendido. En caso de anulación se ofrecerán dos opciones: cambiar la reserva a otra visita que tenga plazas libres (pagando o devolviendo la diferencia) o la devolución del 100% del importe pagado. La devolución se hará tal y como se ha realizado el pago.

• Es imprescindible reservar las visitas si se quiere tener asegurada una plaza, ya que éstas son limitadas.

• Atención: en algunos casos puede cambiar el punto de salida en un mismo tipo de visita guiada pero en días y/o horarios distintos. En la reserva viene detallado el punto de salida pero será responsabilidad del usuario localizar el lugar y llegar al mismo con 10 minutos de antelación a la hora de salida. En caso de no hacerlo, perderá el derecho a realizar la visita guiada.

• Cualquier anulación o cambio de reserva, deberá ser realizado con 48 horas de antelación.

• Los precios incluyen el IVA.

BISITA GIDATUAK
ON-LINE EROSKETA
www.geoparkea.com
VISITAS GUIADAS
COMPRA ON-LINE

## MARTXOA - MARZO

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 S | 29 | 30 | 31 | | |

## APIRILA - ABRIL

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 Z | 27 S | 28 Z | 29 S-M | 30 |

## MAIATZA - MAYO

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 S | 26 | 27 M | 28 Z |
| 29 | 30 | 31 | | | | |

## EKAINA - JUNIO

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 S | 25 M |
| 26 Z | 27 | 28 | 29 | 30 | | |

## UZTAILA - JULIO

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 S-Z | 25 M-Z | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| 31 | | | | | | |

# ABUZTUA - AGOSTO

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 M-S | 23 Z-S | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

# IRAILA - SEPTIEMBRE

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | |

# URRIA - OCTUBRE

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 Z | 7 M S | 8 Z S |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 | | | | | |

# AZAROA - NOVIEMBRE

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | | | |

# ABENDUA - DICIEMBRE

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |




# FLYSCHAREN IBILBIDEA
# LA RUTA DEL FLYSCH

iraupena
**3:00 h.**
duración

## Flyscha, portuak eta kostako tradizioa, itsasontziz
## En barco por el flysch, los puertos y la tradición marinera

Joan-etorriko nabigazioa egingo dugu Zumaia eta Mutriku artean, Debatik pasatuz, Geoparkeko kosta ikuspegi geologikotik eta kulturaletik ezagutzeko. Txangoan zehar, flyschari buruzko azalpenak emango dizkigute, baita eskualde honetan oso garrantzitsuak izan ziren bizimodu eta ohiturei buruzkoak ere: ontzigintza Zumaian, merkataritza Deban eta balea-arrantza Mutrikun. 45 minutuko tartea izango dugu geure kabuz Mutrikuko portua eta herrigune historikoa bisitatzeko, monumentu multzo izendatua izan zena.

Navegaremos de Zumaia a Mutriku pasando por Deba, y vuelta, para conocer la costa del Geoparque desde el punto de vista geológico y cultural. A lo largo del recorrido recibiremos explicaciones sobre los principales rasgos del flysch y sobre las formas de vida y tradiciones que antaño fueron más importantes en esta tierra: la construcción naval en Zumaia, el comercio en Deba y la pesca de la ballena en Mutriku. El visitante tendrá aproximadamente 45 minutos libres para visitar el puerto y el casco histórico de Mutriku, declarado conjunto monumental.

**Ordua: 10:30 h / 16:30 h**

- Irteera: Zumaiako kirol portua 9. pantalana
- Prezioa: 25€ / - 12 urte: 15€
- Beharrezkoak: jantzi eta oinetako egokiak.

**Hora: 10:30 h. / 16:30 h.**

- Salida: Puerto deportivo de Zumaia, pantalán 9
- Precio: 25€ / - 12 años: 15€
- Equipo necesario: ropa y calzado adecuados.



Audiogidak ingeles eta frantsezez.
Audioguías en inglés y francés.

# FLYSCHA, BEGIRADA BATEAN
# FLYSCH ESENCIAL

iraupena **1:00 h.** duración

## Itsasontzi-ibilaldia, Lurraren liburu harrigarria ezagutzeko
## Paseo en barco para descubrir el gran libro de la Tierra

Itsasontziz joan-etorria egingo dugu, Deba-Zumaia biotopo babestuan barrena. Flyscharen labar ikusgarriak ezagutuko ditugu, 50 milioi urtetik gorako historia daukatenak; baita 100 metroko lur-jauziak itsasertzean, ezkutuko kalak eta Europan dagoen marearteko zabalgune handienetako bat ere.

Visita de ida y vuelta en barco por el biotopo protegido Deba-Zumaia. Conoceremos los espectaculares acantilados del flysch, con una historia superior a 50 millones de años, grandes desprendimientos de más de 100 metros de altura, calas recónditas y una de las mayores rasas mareales de Europa.

**Ordua: Kontsultatu**

- Irteera: Zumaiako Txomin Agirre kaia edo Kirol portuko 9. pantalana. Kontsultatu.
- Prezioa: 15€ / - 12 urte: 8€
- Beharrezkoak: jantzi eta oinetako egokiak.

**Hora: Consultar**

- Salida: Muelle Txomin Agirre o Puerto deportivo, pantalán 9 en Zumaia. Consultar.
- Precio: 15€ / - 12 años: 8€
- Equipo necesario: ropa y calzado adecuados.

**Oharra:**
eguraldiarengatik irteera bertan behera gelditzu gero, "Flyscha oinez" irteera egiteko aukera eskainiko da.

**Nota:**
en caso de anulación por mal tiempo, se ofrecerá la posibilidad de realizar la visita "Flysch a pie".

# FLYSCHA OINEZ

Zumaiako Algorri Interpretazio Zentroa bisitatuko dugu Geoparkearen ondare naturalaren eta geologikoaren berri hurbiletik jakiteko. Ondoren, San Telmo ermita entzutetsura joko dugu eta flyscharen labar ikaragarriek eratzen duten paisaia miresgarriaz gozatuko dugu.

**Oharra:** "Flyscha, begirada batean" bisita egitea posible ez den kasuetan soilik eskainiko da.

- Irteera: Zumaiako Turismo Bulegoan
- Prezioa: 8€ / - 12 urte: 4€
- Beharrezkoak: jantzi eta oinetako egokiak.

# FLYSCH A PIE

Visitaremos el Centro de Interpretación Algorri de Zumaia para concocer en profundidad el patrimonio natural y geológico del Geoparque. Para, a continuación, acercarnos a la famosa Ermita de San Telmo, donde disfrutaremos del increíble paisaje que ofrecen los imponentes acantilados del flysch.

**Nota:** se ofrecerá únicamente en caso de no poder realizarse la visita "Flysch esencial".

- Salida: Oficina de Turismo de Zumaia
- Precio: 8€ / - 12 años: 4€
- Equipo necesario: ropa y calzado adecuados.



# ZUMAIA-DEBA / DEBA-ZUMAIA ITSASONTZIZ-EN BARCO

iraupena **1:00 h.** duración

## Itsas ibilaldia flyscharen labarretatik
## Travesía por mar por los acantilados del flysch

Itsasaldia Zumaian hasi eta Debaraino edo Deban hasi eta Zumaiaraino. Flyscheko labarren edertasuna miretsiko dugu, 50 milioi urteko historia oparoaren gordailuak, 100 metroko altuera duten lur-jauzi handiak, itsasarte ezkutuak eta Europako marearteko zabalgune handienetako bat.

Aukera paregabea da Euskal Kostaldeko Geoparkeko udalerrietako bi lasaitasun osoz bisitatzeko.

Travesía en barco con salida en Zumaia y llegada a Deba, o con salida en Deba y llegada a Zumaia. Admiraremos la belleza de los acantilados del flysch, que guardan una inmensa historia de más de 50 millones de años, grandes desprendimientos de más de 100 metros de altura, calas recónditas y una de las mayores rasas mareales de Europa.

Es una excelente opción para visitar con tranquilidad dos de los municipios del Geoparque de la Costa Vasca.

**Ordua: Kontsultatu**

- Irteera: Deba edo Zumaia.
- Prezioa: 10€ / - 12 urte: 7€
- Beharrezkoak: jantzi eta oinetako egokiak.

**Hora: Consultar**

- Salida: Deba o Zumaia.
- Precio: 10€ / - 12 años: 7€
- Equipo necesario: ropa y calzado adecuados.



# NAUTILUS, FLYSCHEKO FOSILAK NAUTILUS, LOS FÓSILES DEL FLYSCH

iraupena **2:30 h.** duración

## Fosil handiak eta labarrak itsasotik
## Grandes fósiles y acantilados salvajes desde el mar

Nautilus museoa ikusi eta itsasontziz irtengo gara flysch beltzaren labarrak ezagutzera. Bisitan zehar, Geoparkearen inguru honetan aurkitu zituzten amonite erraldoiak erakutsiko dizkigute. Eta flysch beltzean azalduko digute Bizkaiko Golkoa nola zabaldu zen, eta lurjausi handiak nola erori ziren itsaspeko arroila sakonetan behera.

Visitaremos el museo Nautilus y saldremos en barco para conocer los espectaculares acantilados del flysch negro. Durante la visita descubriremos los amonites gigantes encontrados en este tramo del Geoparque. Con el flysch negro entenderemos cómo se abrió el Golfo de Bizkaia y cómo se formaron grandes cañones submarinos por los que caían desprendimientos enormes.

**Ordua: 10:00 h / 16:00 h**

- Irteera: Nautilus ikasgune geologikoa Mutriku
- Prezioa: 13€ / - 12 urte: 7€
- Beharrezkoak: jantzi eta oinetako egokiak.

**Hora: 10:00 h. / 16:00 h.**

- Salida: Centro de interpetación geológica Nautilus Mutriku
- Precio: 13€ / - 12 años: 7€
- Equipo necesario: ropa y calzado adecuados.



# IRTEERA GEOLOGIKOA
# SALIDA GEOLÓGICA

iraupena **3:15 h.** duración

## Geoparkeko santutegi geologiko nagusia. Oinez eta itsasontziz
## El gran santuario geológico del Geoparque. A pie y en barco

Munduko gune geologiko nagusietako baten sekretuak ezagutuko ditugu irteera honetan, oinez lehendabizi, itsasontziz ondoren. Gidari espezializatu batek geologoen jardueraren berri eman eta harkaitzetan jasota gelditu diren hainbat gertakari ulertzen lagunduko digu, hala nola dinosauroen desagerpena eta aldaketa klimatikoak. Algorri interpretazio zentroan hasiko gara, gero itsaslabarrak oinez ezagutuko ditugu eta, azkenik, itsasontzian abiatuko gara. Itsasotik harkaitzen ikusmira ederrena izango dugu.

En esta visita, primero a pie y luego en barco, descubriremos los secretos de uno de los grandes santuarios geológicos del planeta. De la mano de un guía especializado, nos acercaremos al mundo de los geólogos y reconoceremos en las rocas eventos como la gran extinción de los dinosaurios o los cambios climáticos de la Tierra. La visita comienza en el centro Algorri, recorre los acantilados a pie y termina con un paseo en barco, que nos sitúa frente al afloramiento rocoso para disfrutar de su perspectiva más impresionante.

**Ordua: 10:15 h**

- Irteera: Algorri Ezagutza Etxea, Zumaia
- Prezioa: 20€
- Gutxieneko adina: 12 urte
- Beharrezkoak: jantzi eta oinetako egokiak.

**Hora: 10:15 h.**

- Salida: Centro de Interpretación Algorri, Zumaia
- Precio: 20€
- Edad mínima: 12 años
- Equipo necesario: ropa y calzado adecuados.



# FLYSCH BELTZA
# EL FYLSCH NEGRO

iraupena **1:30 h.** duración

## Geoparkeko itsas hondoak eta flysch zaharrena
## Los fondos marinos y el flysch más antiguo del Geoparque

Ibilaldi harrigarria Geoparkeko itsas hondo zaharrenetan barrena. Debako hondartza bikainean eta itsas pasealekuan egiten den oinezko bisita honek aukera ematen digu, gidari espezializatu baten eskutik, Geoparkeko flysch ezezagunenaren, hau da, Debako flysch beltzaren, sekretuen berri jakiteko. 100 milioi urteko bidaia egingo dugu iraganera, Bizkaiko Golkoa zabaldu zen hasierako garaietara, eta itsaspeko paisaia zoragarria bistaratuko dugu: koralezko arrezife handiak, itsaspeko abaniko sakonak, lurrikarak eta naturaren harribitxi bereziak, hala nola Debako septariak.

Un paseo sorprendente por los fondos marinos más antiguos del Geoparque. Visita a pie por la extraordinaria playa y paseo marítimo de Deba que nos permitirá conocer, de la mano de un guía especializado, los secretos del flysch más desconocido del Geoparque, el flysch Negro de Deba. Viajaremos 100 millones de años hasta los primeros episodios de la apertura del Golfo de Bizkaia para visualizar un paisaje submarino formado por grandes arrecifes de coral, abanicos submarinos profundos, terremotos y pequeños caprichos naturales como las conocidas septarias de Deba.

**Ordua: Kontsultatu (marearen arabera)**

- Irteera: Debako Turismo Bulegoan
- Prezioa: 8€ / - 12 urte: 5€
- Beharrezkoak: jantzi eta oinetako egokiak.

**Hora: Consultar (depende de la marea)**

- Salida: Oficina de Turismo de Deba
- Precio: 8€ / - 12 años: 5€
- Equipo necesario: ropa y calzado adecuados.



# MAREARTEKO ZABALGUNEA
# LA RASA MAREAL

iraupena **3:15 h.** duración

## Flyscheko bizitza eta koloreak ezagutzen
## Descubriendo la vida y los colores del flysch

Bisita harrigarri honek biologiari erreparatzen dio batez ere. Itsasbehera oso behean dagoenean bakarrik egin daiteke. Gidari espezializatu baten laguntzaz, marearteko zabalgunea ezagutuko dugu, labarren oinarrian azaleratzen den plataforma harritsua. Oso ekosistema aberatsa dauka: itsas izarrak, olagarroak, itsas erbiak eta bestelako izakiak aurkituko ditugu; kolore eta forma anitzetako bizitza zabalduko zaigu begien aurrean.

Es una visita sorprendente, de carácter biológico, que se realiza únicamente con marea muy baja. De la mano de un guía especializado, descubriremos la enorme variedad de especies y los mecanismos de adaptación que les permiten vivir en un ecosistema tan complejo como la rasa mareal, la plataforma rocosa que aflora al pie de los acantilados. Allí habitan estrellas de mar, pulpos, pepinos, liebres, todo un mundo de vida y color a nuestro alcance.

**Ordua: Kontsultatu** (marearen arabera)

- Irteera: - Zumaiako Turismo Bulegoa (Z)
  - Errota Berri Nekazalturismoa (S)
  - Mutrikuko Turismo bulegoa (M)
- Prezioa: 15€ / - 12 urte: 8€
- Gutxieneko adina: 10 urte
- Beharrezkoak: haitzetan ibiltzeko oinetako egokiak eta ura.
- Zailtasun maila: ertaina-altua

**Hora: Consultar** (en función de la marea)

- Salida: - Oficina de Turismo de Zumaia (Z)
  - Errota Berri Agroturismo (S)
  - Oficina de Turismo de Mutriku (M)
- Precio: 15€ / - 12 años: 8€
- Edad mínima: 10 años
- Equipo necesario: calzado apropiado para andar sobre rocas, y agua para la travesía.
- Nivel de dificultad: medio-alto.



# KARSTEKO ZAPOREAK
# LOS SABORES DEL KARST

iraupena **2:00 h.** duración

## Paseo bat Geoparkeko bihotzean
## Un paseo por el corazón del Geoparque

Uraren higadurak sortu du Olatzeko bailara ezkutua, kareharrizko piramide handien artean. Uraren ibilbide harrigarria jarraitu eta paisaia karstiko bereziaren elementu nagusiak ikusiko ditugu.

Txangoan Goienetxe euskal baserri tipikoa ezagutuko dugu, artalde bat ikusi eta amaitzeko, gazta eta txakolina dastatuko ditugu.

Visitaremos el valle escondido de Olatz, formado por la erosión del agua y situado entre grandes pirámides de roca caliza. Seguiremos el sorprendente recorrido del agua y descubriremos los elementos principales del modelado kárstico, para entender un paisaje auténtico.

En el caserío Goienetxe visitaremos un rebaño de ovejas y disfrutaremos de una degustación de queso acompañada del vino local txakoli.

**Ordua: 11:00 h**

- Irteera: San Isidro ermita, Olatz auzoa, Mutriku
- Prezioa: 8€ / - 12 urte: 5€
- Gutxieneko adina: 4 urte
- Beharrezkoak: jantzi eta oinetako egokiak.

**Hora: 11:00 h.**

- Salida: Ermita de S. Isidro, Bº de Olatz, Mutriku
- Precio: 8€ / - 12 años: 5€
- Edad mínima: 4 años
- Equipo necesario: ropa y calzado adecuados.



# LASTUR FAMILIAN
# LASTUR EN FAMILIA

iraupena **3:00 h.** duración

## Errotak, taloak eta herri-jolasak familia osoarentzat
## Molinos, talos y juegos tradicionales para toda la familia

Gaztetxoenak izango dira abentura honetako protagonistak. Lasturko errota zaharrean artoa eho ondoren, irinaz taloa egiten ikasi eta txistorrarekin jango dute.

Jarraian, xarma berezia duen Lasturko plazan elkartu eta euskal jolas tradizionaletan arituko dira: txingak, sokatira, lokotx biltzea, zaku lasterketa…

Haurrek zein helduek ongi pasatzeko aukera izango dute.

Los niños y niñas serán protagonistas de esta aventura. Tras moler el maíz en el antiguo molino de Lastur, comenzaremos la visita con un divertido taller de talos, donde nos chuparemos los dedos con esta popular torta de maíz acompañada de chistorra.
A continuación, nos reuniremos en la encantadora plaza de Lastur y jugaremos a los juegos tradicionales vascos: carrera de chingas, sokatira, recogida de mazorcas, carrera de sacos…
Tanto niños como adultos se lo pasarán en grande.

**Ordua: 10:30 h**

- Irteera: Lasturko plaza
- Prezioa: 15€ / - 12 urte: 8€
- Hizkuntza: elebiduna (euskara-gaztelera)
- Beharrezkoak: jantzi eta oinetako egokiak

**Hora: 10:30 h.**

- Salida: plaza de Lastur
- Precio: 15€ / - 12 años: 8€
- Idioma: bilingüe (euskara-castellano)
- Llevar: ropa y calzado adecuado.



# GOTIKOAREN ALTXORRA DEBAN
# JOYA DEL GÓTICO EN DEBA

iraupena **1:30 h.** duración

## Bisitatu Santa Maria eliza ikusgarria
## Visita a la majestuosa iglesia parroquial de Sta. María

Gipuzkoako elizarik ikusgarrienetakoa da, Debako alde zaharraren erdi-erdian kokatua, eta euskal gotikoaren altxortzat hartzen da. Edozein katedralekin alderatzeko modukoa da, bai duen tamainarengatik, bai bere ezaugarriengatik eta apaindura aberatsarengatik ere. Bisita honetan, eliz atari polikromatu bikaina eta XVI. mendeko klaustroa, Gipuzkoako zaharrena, miretsiko ditugu.

**Abuztuko bisitei kontzertuarekin emango diegu amaiera.*

Situada en el corazón del casco histórico de Deba, es una de las más majestuosas de Gipuzkoa y está considerada joya del gótico vasco. Sus dimensiones y rica decoración la hacen comparable con cualquier catedral. Durante la visita admiraremos el magnífico pórtico policromado y el claustro, levantado en el siglo XVI, el más antiguo de Gipuzkoa.

**Las visitas de agosto incluirán un concierto.*

**Ordua: 12:00 h**

- Irteera: Turismo Bulegoa
- Prezioa: 8€ / - 12 urte: 5€

**Hora: 12:00 h.**

- Salida: Oficina de Turismo
- Precio: 8€ / - 12 años: 5€



# FLYSCHEKO OLAGARROA
# EL PULPO DEL FLYSCH

iraupena **2:00 h.** duración

## Zumaiako protagonista: bai harraldean, bai sukaldean
## Protagonista de la rasa mareal y la gastronomía en Zumaia

Geoparkeko itsaslabar eta bidezidorretan barrena, flyscheko olagarroa harrapatzeko antzinako arrantza-teknikak eta sukaldaritza-tradizioa ezagutuko ditugu. Izan ere, olagarroa da natura-ingurune liluragarri honetako ikur nagusia.

Eta, esperientzia ahaztezin honi amaiera biribila emateko, pintxo eder bat eta txakolina dastatuko ditugu.

Nos adentraremos en los acantilados y senderos de Geoparkea para descubrir las ancestrales técnicas de pesca y la tradición culinaria asociada al pulpo del flysch, molusco convertido en emblema de este fascinante entorno natural.

Y como broche final a una experiencia inolvidable, saborearemos un buen pintxo y un txakoli.

**Ordua: 11:00 h**

- Irteera: Turismo Bulegoa
- Prezioa: 15€ / - 12 urte: 10€
- Gutxieneko adina (urteak): 8

**Hora: 11:00 h.**

- Salida: Oficina de Turismo
- Precio: 15€ / - 12 años: 10€
- Edad mínima (años): 8



# MUTRIKU MARINELA
# MUTRIKU MARINERA

iraupena **1:30 h.** duración

## Euskaldunak eta itsasoa, antzinatik datorren harreman estua
## La ancestral relación del pueblo vasco con la mar

Mutrikuko hirigune historikoa gure kostaldean ondoen mantentzen denetako bat da. Monumentu Multzo izendatu da, interes historiko-artistiko nabarmeneko etxe eta jauregiak gorde baitira. Familia garrantzitsuen eta itsasgizon trebeen ekintza gogoangarrien istorioak ezagutuko ditugu, baina baita portuaren inguruan bizi izan ziren arrantzale anonimoenak eta emakume kementsuenak ere. Herriko kaleetan barrena, euskal kostaldeko herri arrantzaleen historiaren zati bat deskubrituko dugu.

Mutriku esconde uno de los cascos históricos mejor conservados de nuestra costa. Declarado Conjunto Monumental, conserva casas y palacios de notable interés histórico-artístico, que rememoran historias de importantes familias y hazañas de grandes marinos vascos, pero también aquellas de anónimos pescadores y enérgicas mujeres que vivieron en torno a su puerto. Recorriendo sus calles, descubriremos parte de la historia de los pueblos marineros de la Costa Vasca.

**Ordua: 12:00 h**

- Irteera: Turismo Bulegoa
- Prezioa: 8€ / - 12 urte: 5€

**Hora: 12:00 h.**

- Salida: Oficina de Turismo
- Precio: 8€ / - 12 años: 5€



# GEOPARKEA ZURE KASA
# GEOPARKEA A TU AIRE

## Begiratokien ibilbidea / Ruta de los miradores

Ezagutu Geoparkearen 15 begiratokiak eta bertako balio natural eta kulturalak 55km-ko ibilbidean zehar.
Eska ezazu zure mapa!

Conoce los 15 miradores del Geoparque; sus paisajes, valores naturales y culturales a través de un recorrido autoguiado de 55 km.
¡Pide tu mapa!

## Ibilbide geologikoak / Geo rutas

30 kilometro baino gehiagoko 6 ibilbide tematiko Mutriku, Deba eta Zumaian; guztiak balizatuak eta interpretatuak.

Más de 30 kilómetros de senderos temáticos en Mutriku, Deba y Zumaia; todos ellos balizados e interpretados.

### EZ EZAZU ARRASTORIK UTZI!

“Leave No Trace” zazpi printzipioak garrantzitsuak dira natura zaindu eta naturaz gozatu ahal izateko:

- Prestatu aurrez irteera ahalik eta xehetasun gehienekin.
- Ibili beti mendi-bideetan zehar.
- Zaborrak etxera eraman edo edukiontzietan hustu.
- Utzi gauzak zeuden bezala edota zeudena baino hobeto.
- Kontuz suarekin.
- Errespetatu larreetako landare eta animaliak.
- Izan atsegina gainerako bisitariekin.
- Errespetatu nekazariaren lana.

### ¡NO DEJES RASTRO!

Los siete principios del “Leave No Trace” son importantes para mantener la naturaleza y así disfrutar de la misma:

- Planifica y prepara tu salida al detalle.
- Camina siempre por la traza del sendero.
- Elimina los deshechos apropiadamente.
- Deja todo como lo has encontrado, a poder ser mejor.
- Atención al fuego.
- Respeta la vida silvestre.
- Sé considerado con otros visitantes.
- Respeta el trabajo agrícola.

## INTERPRETAZIO ZENTROAK • CENTROS DE INTERPRETACIÓN

### ALGORRI

**ALGORRI INTERPRETAZIO ZENTROA**
**CENTRO DE INTERPRETACIÓN ALGORRI**

**943 143 100**
**Juan Belmonte, 21 • ZUMAIA**
info@algorri.eu • www.algorri.eu

### GEOPARK CORNER

**GEOPARKEAREN GUNEA**
**GEOPARK CORNER**

**Debako Turismo Bulegoa**
**943 192 452 • Ifar kalea, 4 • DEBA**
turismoa@deba.eus • www.deba.eus

### NAUTILUS

**MUTRIKUKO IKASGUNE GEOLOGIKOA**
**C. INTERPRETACIÓN GEOLÓGICA NAUTILUS**

**943 603 259 • 943 603 378**
**Jose Antonio Ezeiza, 3 • MUTRIKU**
nautilus@mutriku.net
www.mutriku.net/nautilus

### LASTUR

**KARSTAREN INTERPRETAZIO GUNEA**
**C. INTERPRETACIÓN DEL KARST**

**943 199 090**
**Lasturko plaza • LASTUR (DEBA)**
turismoa@deba.eus
www.deba.eus




**ZUMAIAKO TURISMO BULEGOA**
**OFICINA DE TURISMO DE ZUMAIA**

Kantauri plaza, 13 - 20750 Zumaia
943 14 33 96
turismoa@zumaia.eus
www.zumaia.eus

**DEBAKO TURISMO BULEGOA**
**OFICINA DE TURISMO DE DEBA**

Ifar kalea, 4 - 20820 Deba
943 19 24 52
turismoa@deba.eus
www.deba.eus

**MUTRIKUKO TURISMO BULEGOA**
**OFICINA DE TURISMO DE MUTRIKU**

Plaza Txurruka, s/n - 20830 Mutriku
943 60 33 78
turismo@mutriku.net
www.mutriku.eus

**ONLINE EROSKETA**
**COMPRA ONLINE**

**BISITA GIDATUAK**
**VISITAS GUIADAS**

www.geoparkea.com

Geoparkea
Euskal Kostaldea - Costa Vasca

Eguneratutako egutegia
Calendario actualizado:

@geoparkea    facebook.com/Geoparkea


Argazkiak / Fotografías: Javier Carballo, Luis Llavori, Gorka Zabaleta, David Aprea, Alex Turrillas, Jon Llordes, Victor Manuel Pizarro.

Kaioa

2017ko martxoa - marzo 2017


European Geoparks
GLOBAL GEOPARKS NETWORK
EXPLORE SANSEBASTIAN REGION
EUSKADI BASQUE COUNTRY

Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura
Hezkuntza Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea

Costa Vasca Geoparque mundial de la UNESCO
Euskal Kostaldea UNESCOren munduko Geoparkea